

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Luis Goikoetxea

*Mungia,
Bizkaia (1947)*

Aurkibidea



Biografia



Zintak

MUG-003

- **Proiektua:** Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Mendibil, Gontzal
- **Data:** 2013-11-30
- **Iraupena:** 15 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Bittor mindu egin zen berak idatzitako artikulu bat zela eta

- **Erref:** MUG-003/002
- **Iraupena:** 0:04:48. **Hasi:** 00:00:12. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Alfontso Irigoienek gorazarre artikulu bat idatzi zuen berak 1996an. 1997an Durangoko Azokan topo egin zuten, Bittorri argizaiola eman ziotenean. Bittorrek esan zion artikulua irakurri zuenean ez zuela lorik egin. Ez zion zergatik esaten. Garbi dago zerbaitek mindu zuela. Hortik ondorioztatu zuen aurreko belaunaldian bazirela lehia edo oker ulertu batzuk gugana heldu ez direnak. Hatxea eta euskara batua izan ziren eztabaidagai garrantzak gure gazte denboran. Gerra horiek hoztuak eta ahaztuak daude dagoeneko. Beste batzuk daude gaur indarrean. Gazte baten gaizki idatzitako testuaz. Aldi bakoitzean geu izaten gara ardatz eta akats.

2. Bittorren kezkak literatura sari bat ematerakoan

- **Erref:** MUG-003/003
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:06:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Aisia » Kultura » Idaztea
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Bilboko Iruñea Kafetegiaren literatura sariketan epaimahiko egoten ziren Bittor, Gereño eta bera. Behin kezkatuta agertu zen saria euren irizkide bati eman behar ziotelako, nahiz eta merezi izan. Garbi ageri zen haren zintzotasuna.

Transkripzioa

Beste ikuspegi bat, Bitorrena, izan zan guk urteetan, Bilbon, Iruña kafetegiak antolatu izan ditu, ba, literatur sariketak eta, eta epaimahaian egoten giñen Xabier Gereño, bera eta neu eta holan. Horrek zirenez arteko belaunaldikoak, ba, orduan, ta ni orduan gazteau, ba, konsulta batzuk eta, era batekoak behintzet, egiten eustezan eurek, ezta? Eta behin hor, larogeta lau, bost, sei... hor urteetan, diñost Bitorrek: "Guk, Goiko, honexeri emon beharko dotsegu sarie, ba, hau kidea da ta". Kidea orduan zan ideologikoa. Eta "Ba! arduretute nau, arduretute nau". Ze Bitor ez zan ez saltzeko ez erosteko produktua, Bitor Bitor zan, ezta? Eta kezka eukan berak. Eta halango baten esan neutsen: "Bitor, baiña nasai, ze danok zuk diñozun obra horren alde gauz, orduen ez deukoazu... ze bat datoz, zure kidetasuna, gure bion kidetasuna eta horrena eta sarirako onena dana bat datoz eta". Eta "Bake galanta emon dostezu erantzunegaz". Ezta? Zer erakusten zan? Berbako personea zan, eta, orduan, ha edozeren ganetik berak esaneko edo emoneko berbea ta kidetasunari eusteko, ba, prest egoan, baina zintzotasunaren kontra ez badoa.

3. 'Agorrezia', Bittorrek ateratako sagar-mota

- **Erref:** MUG-003/004
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:06:39. **Bukatu:** 00:10:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Bittor Euskaltzaindira Bilbora joaten zenean, solasaldi luzeak izaten zituen hango langileekin. Ezaguna da Bittorren beste alderdi bat: fruta arbolen landaketa, sagarrena bereziki. Behin Bittorrek menduak eman zizkion Juan Luisi, txukun-txukun atonduta, eta horien artean berak ateratakoa, 'Agorrezia' izenez bataiatu zuena. Zelan sortu zuen kontatu zion. Handi eginda eta frutua ematen daude egun, Kanarietan esaterako.

4. Bittorrek izan du eta badu errekonozimendua

- **Erref:** MUG-003/005
- **Iraupena:** 0:04:07. **Hasi:** 00:10:04. **Bukatu:** 00:14:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:

Bittor baztertuta egon dela esatea gehiegi iruditzen zaio. Garai batean gauza guztien gainean egiten zuten berba: literatura, fonologia... Gero unibertsitatea etorri zen, eta harekin batera espezializazioa. Orain ez dugu horrela berba egiten. Bittor buruargia zen, baina unibertsitateak ematen duen marko teorikoa falta zitzaion. Hala ere, denborak gauza baten behintzat arrazoia eman dio. Euskara bere barrutik aztertu eta irakatsi behar dela defendatzen zuen, bere edukietatik, eta ez tresna huts moduan. Bittorren figura handi eginez doa. Torrealdairen liburuan han dago argazki eta guzti. Euskera agerkarian ere bai, Villasantek defendatu zuen Refranes y Sentencias-i buruzko bere artikulua. Mendebaldean omenaldia egin zitzaion, Argizaiola jaso du... Bittorri errekonozitu zaio bere ekarpena, neurri batean behintzat.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-10

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com